

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Familia eta Eskola	141202	2023-2024
Titulazioa	Maila	Seihilekoa
Lehen Hezkuntzako Gradua	1.	2.
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizko prestakuntza	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Leire Garamendi Merino		

Justifikazioa

Familia funtsezko hezkuntza-eragile bat da, azken hamarkadetan eraldaketa sakonak izan dituen, gizartean gertatutako aldaketan ondorioz. Familiaren bizitza estiloan eta tipologian gertatutako eraldaketa horiek gorabehera, garrantzi handiko eginkizuna mantentzen du haurren garapen eta ikaskuntza prozesuan. Horrenbestez, eskolak familiarekin batera lan egin behar du, haurren garapena bultzatzeko xedez.

Eskolak beste hezkuntza-eragile batzuekin –bereziki familiarekin- kooperatzeak duen garrantziaz jakitun egon arren, erraza da ikustea norainoko zailtasunak dauden lankidetzak hori lortzeko, aldaketa garai hauetan. Testuinguru horretan, ikasgai honek bidea emango dio etorkizuneko irakasleari hezkuntza-ekintzaren konplexutasunaz hausnartzeko prozesu honetan parte hartzen duten eragile ugarien ikuspegitik, kontuan hartuta familia-erakundearen gertatutako aldaketak eta erakunde horrek eskola-erakundearekin dituen loturak, eta, halaber, bien arteko lankidetzak duen garrantzia, ikaskuntza-prozesuak ahalik eta baldintzarik onenetan bideratu daitezkeen. Horri begira, ikasgai honetan puntu hauek izango dira aztergai: hezkuntza eragileen arteko lankidetzak-eredu eta estrategiak; tutorearen eta orientatzailearen eginkizunak; eta guztien arteko elkar-ulertzea hobetzen duten komunikazio-gaitasunak.

Aurrebaldintzak

Lehenengo ikasturteko ikasgaia denez, ez dago inolako aurrebaldintzarik. Dena dela, ikasgaiaren gaitasunak arrakastaz garatzeko, gomendagarria da ikasleek jarrera hauek erakustea:

- Ikasgelara jarraitutasunez etortzea.
- Inplikazioa eta konpromisoa norberaren lanean eta taldearen lanean.
- Parte-hartze aktiboa ikasgelan.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

GG1.-Pentsamendu kritikoa

Maila 1.

- Norbere buruari inguruko errealitatearen gaineko galderak egitea eta errealitate horren inguruko eztabaidetan aktiboki parte hartzea, ematen diren iritziak aztertuz eta norbere eta besteen erabakien ondorioen gainean hausnartuz.

Berriazko gaitasunak

- BG1: Familiekin eta hezkuntza-komunitatearen beste sektore batzuekin kolaboratzeko mekanismo eraginkorrak sortzea, eragile horiek inplikaturaz lehen hezkuntzako ikasleen garapen integralari laguntzen dioten prestakuntza-prozesuetan.
- BG2: Lehen hezkuntzako tutoreari dagozkion giza eta komunikazio trebetasunak bereganatu, familiekiko elkarrizketarako teknikak erabiliz, ikasleei eta hauek familiei beharrezko orientabide eta laguntzak eskaintzeko.
- BG3: Ikasgelako bizikidetzeta-prozesuak eta emozioen heziketarako prozesuak planifikatzea, eta Lehen Hezkuntza ikasleen sozializazioa eta ikasketa errazten duten jarduerak praktikara eramatea.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaiari



GIH 5 Genero-berdintasuna

1. Ikaslea gai da genero-rolen pertzepzio tradizionala ezagutu eta zalantzan jartzeko, ikuspegi kritiko batetik eta ainguraketa kulturala errespetatuz.

Edukiak

- 1.-Familiaren eta Eskolaren arteko lankidetzeta. Familiarekiko lankidetzaren garrantzia. Familiarekiko elkarlanerako estrategiak. Familiekiko lankidetzeta ereduak.
- 2.-Tutoretza Lehen Hezkuntzan: gizarte-gaitasunak eta familiekiko komunikazioa. Komunikazio Estiloak. Informazioa trukatzeko uneak, jarrerak eta tresnak. Tutoretza-elkarrizketa. Irakaskuntzaren praxia lehen hezkuntzan hobetzeko tresnak eta baliabideak.
- 3.-Gelako elkarbizitzan eta umeen garapenean eta sozializazioan eragina duten elementuak: lanaren antolaketa, metodologiaren eragina, lan kooperatiboa, emozioen hezkuntza.
- 4.-Ikus entzunezko hizkuntzen eragina: ikus entzunezko baliabideen erabilera hezigarria.
- 5.-Familia eta bere eragina haurren garapenean. Familia kontzeptua. Familiaren eboluzioa. Familiaren eginkizunak. Familia motak eta ezaugarriak. Familiaren heziketa estiloak.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaia ondoren deskribatutako estrategien arabera garatuko da:

Ikasgaia testuinguruan jartzea ahalbidetzen duten jarduerak: gizartearen, familiaren eta hezkuntzaren errealitatearekin kontaktatzeko xedez diseiniatutako jarduerak; eta bizipen esanguratsuetatik abiatzea, hala nola elkarrizketak, galderak, ikusitako bideoak, irakurketa iradokiztaileak, eztabaidak, testuen edo errealitatearen azterketak.

Hausnarketa pizten duten jarduerak: hausnarketa kritikoa egitera, norberaren pertzepzio eta sinesmenak zalantzan jartzera eta alternatiba eta erantzunak bilatzera bultzatzen duten jarduerak. Besteak beste, honako ekintza hauek sartzen dira hemen: gogoeta orientatzen duten galderen gidoiak, problemen formulazioa eta ikerketa soilak egitea.

Ikasgaiaren edukiari buruko aurkezpena eta lana: banakako eta taldekako jarduerak, ulermen sakona lortzeko eta hezkuntza-errealitateari eta beraren testuinguru sozial eta familiarrari aplikatu dakiekeen ezagutza eskuratzeko: azalpenak, irakurketak, saiakerak egitea, mintegi-saioak, datuak bilatzea eta ikerketa soilak egitea.

Jarduera praktikoak: gaitasunen esperimentazio aktiboa ahalbidetzeko diseinatuta, hala nola jarduerak diseinatzea, kasuak aztertzea eta jorratzea.

Ebaluaketa-jarduerak: proposatutako berariazko gaitasunak eta gaitasun generikoak eskuratzeko prozesuaren ebaluaketarako diseinatuta.

Proposatutako denbora-banaketa: 6 ECTS = 150 ordu.

33,6 ordu ikasgelako jarduerarako: eduki teorikoen aurkezpena eta azalpena, banakako eta taldekako jarduera praktikoak, simulazioak eta role-play ekintzak, kasuen azterketa eta eztabaidak.

116,4 ordu ikasgelatik kanpoko jarduera pertsonalarentzat eta taldekako lanarentzat: testuak irakurtzea eta aztertzea, ariketa eta galdetegiak, eskemak lantzea, banakako eta taldekako lanak prestatzea eta egitea, proba objektiboetarako ikasketa, datuak bilatzea eta tutoretzak.

Ebaluazioa

Ikasgai honen prozesua eta gaitasunen garapena ebaluatzeko, teknika hauek erabiliko dira:

Proba objektiboak: %50.

Banakako edota taldekako lanak: %50.

Kalifikazioa: BG1: % 30. BG2: % 30. BG3: % 30 eta GO1 % 10.

Oharra: Ebaluatuak izateko entregatutako lan edo jarduera guztiek bete behar dituzte gutxienezko baldintza batzuk, bai arlo formalari dagokionez (aurkezpena, formatoa, iturburuak aipatuak eta erreferentziak e.b.), bai idatziko komunikazioari dagokionez (zuzentasuna, adierazpen eta erregistro egokiak). Baldintza minimo hauek bete ezean, jarduera ez da zuzenduko eta automatikoki ez ohiko deialdira pasatuko da.

Dokumentazioa

- Alfonso, C. et al. (2003). *La participación de los padres y madres en la escuela*. Graó.
- Ararteko.(2008). *Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak*. Francisco de Vitoria Giza Eskubideen bilduma.
http://www.ararteko.net/s_p_9_final_Principal_Listado.jsp?layout=p_5_final_principal.jsp&codResi=1&language=eu&codMenu=488&codMenuPN=1&codMenuSN=376&contenido=4859&tipo=5&nivel=1400&seccion=s_fdoc_d4_v7.jsp&title=Eskolako+bizikidetasuna+eta+gatazkak
- Arnaiz, P. eta Isús, S. (1997). *La tutoría, organización y tareas*. Graó
- Arranz, E. (Coord.). (2004). *Familia y desarrollo psicológico*. Pearson Prentice Hall.
- Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de Investigación Educativa*. 21(1),7-43.
http://eoeepsabi.educa.aragon.es/descargas/G_Recursos_orientacion/g_7_competencias_basicas/g_7_2.compet_y_educ.emocional/2.1.Educ_emocional_competenc_bas.pdf
- Bisquerra, R. (2002). *Educación emocional y bienestar*. Barcelona. Cispaxis.
- Bolivar, A.(2006).Familia y Escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación* 339,119-146.
- Bueno, M^a.R. eta Garrido, J.A.(2012). *Relaciones interpersonales en la educación*. Pirámide.
- Cagigal,L. (Komp.).(2005). *Construyendo puentes: claves de colaboración escuela-familia ante los problemas de conducta*. PPC.
- Céspedes, A. (2013).*Educación emocional y bienestar*. Ediciones B.
- Comellas, M^a.J. (2009).*Familia y Escuela: compartir la educación*. Grao.
- Duckworth, K. (2008).Influences on Attainment in Primary School Interactions Between Child, Family and School Contexts.
<https://www.gov.uk/government/publications/influences-on-attainment-in-primary-school-interactions-between-child-family-and-school-contexts>
- Díaz, F. (Koord.).(2007). *Modelos para autoevaluar la práctica docente*. Práxis.
- Edwards, A., eta Warin, J. (1999). Parental Involvement in Raising the Achievement of Primary School Pupils: why bother? *Oxford Review of Education*,25 (3),325-343.
- Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte gaietako Saila. (2010). *Familia etorkinen arteko harremanetarako Jardunbide Egokien Gidaliburua*. Eusko Jaurlaritzako argitalpen zerbitzua.
- FETE-UGT (2013). *Libro Blanco de la educación intercultural. Trabajo con las Familias. Aula Intercultural*.
- Fernández-Berrocal, P. eta Extremera, N. (2006).La inteligencia emocional en el contexto educativo, hallazgos científicos de sus efectos en el aula. *Revista de Educación*,(332),97-116.
- Gallego, F. eta Riart, V. (Koord.). (2006). *La tutoría y la orientación en el siglo XXI: nuevas propuestas*. Octaedro.
- Gervilla, A. (2008) *Familia y educación familiar: conceptos clave, situación actual y valores*. Narcea
- Golombok, S, (2006). *Modelos de familia: ¿Qué es lo que de verdad cuenta?* Grao.
- Lebrero, M^a P. eta Fernández, M^a D. (2013). *Experta Universitaria en educación infantil (0 -6 años)*. Madrid. UNED.
- López, F. Etxebarria, I., Fuentes, M.J. eta Ortíz, M.J. (Koord.). (2000). *Desarrollo afectivo y social*. Madrid. Pirámide.
- Martín, M^a.J. (2001). Las escuelas de padres: posibilidades y retos. In Torre, J.C. (ed). (2001). *Orientación familiar en contextos extraescolares*. Universidad Pontificia Comillas.
- Martín, X., Puig, J. M^a., Rubio, L. eta Trilla, J. (2008). *Tutoría. Técnicas, recursos y actividades*. Anaya.

- Martínez, A. eta Galíndez, E. (2003). *Familia y entorno: implicación de la familia en la organización escolar*. Mensajero.
- Montanero, M. (2008). *Modelos de orientación e intervención Psicopedagógica*. Universidad de Extremadura, servicio de publicaciones.
- Pujolás, P.(2008). *9 Ideas Clave. El aprendizaje cooperativo*. Graó.
- Reizabal, L. eta Atxa, J. (2012). *Hezkuntza Soziomozionala eta Ikaskuntza Zailtasunak: Hezkuntza Testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea*. UEU.
- Rodrigo, M^a J. eta Palacios, J. (2001). *Familia y Desarrollo Humano*. Alianza.
- Rodrigo, M^a J. eta Palacios, J. (2001). *Familia eta Giza Garapena*. UEU.
- Sola, T. eta López, M. (2008). *El plan de orientación y acción tutorial en educación infantil y primaria. Recursos prácticos para su programación y ejecución*. Universitas.
- Teixidó, J. eta Castillo, M. (2013). *Prácticas de mejora de la convivencia escolar. Recopilación, sistematización y análisis de buenas prácticas*. Aljibe.
- Trianes, M^a.V. (2013). *Relaciones sociales competentes en educación primaria*. Aljibe.
- Vílchez, L.F. (2013). *La educación (com)partida. Sentido y acentos*. PPC.